

«Irakasleok motibatuta ez bagaude, nola motibatuko dugu parekoa?»

Marisa Barrena

Batailak galdu bai, borrokan etsi ez

Lan politikoaren errepresentazioaz ari ginela, hauxe esan zidan Petra Bauer zinema zuzendariak: Kaleko irudi sutsuekin lotu ohi dela iraultza, gizon-saldoekin, baina, benetan, atzeko lan guztian dagoela gakoa, eguneroko lan ikusezinetan. Sukaldeko lana esan ohi diote. Halakoxe militantea dugu Marisa Barrena. Orain, adibidez, euskal emakumeei buruzko sarrerak idazten ari da Wikipedian, eta Bidelagun onenaren saria eman berri dio Mintzanet atariak.

Testua: Danele Sarriugarte Mochales

Argazkiak: Dani Blanco

Erretiroa hartuta zaude, ez ordea geldirik. Zer moduz?

Ondo, erretiro garaia niretzat oso polita da, egiteko gogoia neukan gauza asko egiteko aukera ematen dit.

Sortzez ez zara Durangokoa.

Zornotzan jaio nintzen 1951n, eta gero, 8 urte nituela etxetik bota gintuzten. Orduan ez zegoen Kaleratzeak Stop eta halako mugimendurik. Bota ostean, hara-hona ibili ginen, eta orain dela 36 urte etorri nintzen Durangora, familia-rekin.

Baserrian jaio zinen, ezta?

Bai, eta Euban ginen garaian ere baserrian bizi izan ginen. Aitak asko maite zituen lurra eta abereak, eta nahiz eta fabrika lan egin, beti nahi izan zuen baserrian bizi, eta hala egin zuen azken urteak arte. Ni kalera ezkondu nintzen.

Ez zeneukan aitak bezalako grinarik baserriarekin?

Baserriak badauka kaletarrentzat halako lilura bat; baserrian jaio garenontzat, ordea, lotura izan da, batez ere gazte garaian. Kaleko lagunak hondartzara-eta joaten zirenean, gu belarra biltzen aritzen ginen. Gaztetan, egia esan, ez nuen baserria maite izan; nagusiagotan bai, baina ez zen nire bokazioa. Eta kontuan eduki behar da maizterrak ginela; ezberdina da. Etxean ere bilatu zuten lanbide bat izan nezan, eta orain pentsatzen dut izan daitekeela horregatik, maizterrak ginelako.

Gazterik hasi zinen lanean.

15 urterekin. Orain administrari laguntzaile esaten zaion horretan. Nire bokazioa beti izan zen irakasle aritzea, txikitatik. Baina, garaiko batxiler elementala amaitu nuen 14 urterekin, eta aukera

Marisa Barrena Larruzea

Zornotza, 1951

Bokazioa argi zuen umetatik: *maistrie!* Nagusiagotan ikasi zuen lanbidea: lehenik, Magisteritza, eta ondoren, Psikopedagogia. Militantzia politikoan ere jardun zen frankismo garaian: lehenik, HASIn, eta ondoren, EKIA taldea sortuta, Euskadiko Ezkerran. Alderditik bota zituzten, eta orduz geroztik ez da berriro inon afiliatu. Argi esan omen zioten, ez zuela politikarako balio, sentimenduek eragiten ziotelako. 2005ean sortu zuen, hainbat kiderekin batera, Andereak taldea. Urte hartan, Durangon, Ofelia Hernández erail zuen haren bikotekideak. Halakoak salatzeak premiaz sortu zuten elkartea.





gutxi geneukan Magisteritza egiteko, beraz, egin nituen komertzio izeneko ikasketa batzuk, herrian bertan. Handik urtebetera lanpostuak irten ziren, eta aurkeztu nintzen. Hamar urtez jardun nintzen han: lehenik, administrari laguntzaile, urtebetez, eta ondoren, soldatak-eta kudeatzen, baina lanak ez ninduen asebetetzen.

Zer fabrika zen?

Kooperatiba bat, Ekin. Kooperatiba zenez, gizon langile guztiak bazkide ziren. 80 bat gizonen lan egiten zuten han, eta hiru neska ginen bulegoan. Baina bulegoko neskak ez geneukan bazkide izateko aukerarik. Gaur egun bai, baina orduan ez zegoen aukerarik. Bigarren mailakoak ginen guztiz. Ez geneukan izenik ere. Soldaten paperetan, adibidez, “andereñoen soldatak” jartzen zuten, eta horrek azkenean halako galdera bat uzten dizu barruan: zer gara gu? Zenbateraino gara bigarren mailakoak?

Lankideekin, hala ere, oso giro ona zegoen. Euskararen aldeko mugimendua zegoen, batez ere garai batean eduki genuen gerentea oso euskaltzalea zelako, eta ez daukat oroitzapen txarrik, baina ez zen nire gustuko lana, eta Ikastolen Elkartearen lan egiteko aukera sortu zitzaidanean...

Hartu egin zenuen.

Bai. Gerenteak, gainera, esan zidan joateko lasai, gordeko zidatela postua, eta gorde zidaten, baina ez nintzen itzuli. Ikastolen Elkartearen lan egin nuen bost

urtez, eta hor hasi zen berriro nire irakasle gogoaz pizten.

Zertan jardun zinen Ikastolen Elkartearen?

Ikastolen Elkartea kooperatiba zen Bizkaian, eta hango idazkaria nintzen. Beste lurraldeetako idazkariak gizonetakoak ziren, eta behin bilera batean gertatu zen gauza bitxi bat. Galdetu zuten: “Bizkaiko idazkaria ez al da etorri?” Nik esan nuen: “bai, ni naiz”. Eta haiek: “ez, baina idazkaria...”. Idazkaria maiuskulaz esan nahi zuten, ez bulegaria. Horrelako kontuak. Lan interesgarria izan zen.

Gero, ikastola publiko eta pribatuaren arteko zera hori sortu zen. Ni publikoaren alde nengoen. Ordurako nahiko borroka zegoen barruan, eta giroa ere gaiztotzen hasi zen, eta pentsatu nuen agian beste bide bat bilatu behar nuela. Irakasle izateko gogo horrekin jarraitzen nuen, bada heldu nion.

Magisteritza ikasi zenuen.

Bai, eta HABEko oposaketak egin nituen. Bertan egin nuen lan urtetan, baina Joseba Arregik, Kultura eta Euskara sailburua zela, itxi egin zituen euskaltegi batzuk, euskaltegi pilotuak, eta hortik aurrera beste lan batzuetan ibili naiz. Nire lanik gustukoena, hala ere, irakaskuntza izan da beti.

Zergatik itxi zituzten euskaltegi pilotuak?

HABEk zeuzkan euskaltegi mota bi: batetik, pilotuak, eredu-edo zirenak, zelanbait esatearren, erkidegoko hiru hiriburuetan, eta barnetegi bat Honda-

rribian. Eta gero zeuzkan udal euskaltegiak. Pilotuetako langileok Jaurlearitzako langile ginen zuzenean; beste euskaltegiak, berriz, udalek kudeatzen zituzten. Eta pilotuetako langileok greba egin genuen, ordutegiengatik batez ere. Mehatxuak jaso genituen, itxi egingo zituztela zentroak, baina ez genuen inoiz sinetsi. Sindikatuek ere esan ziguten Jaurlearitzak ezin izango zuela halakorik egin, baina egin zuen. Ez ginen kanpoan geratu, noski, ordurako funtzionario ginelako, eta beste toki batzuetara bideratu gintuzten.

HABE barruan formazio ona eman ziguten. Txarrena izan zen, nire ustez, gure onena emateko garaian geundenean itxi zituztela, hala sentitzen dut nik behintzat. Gero IRALEn lan egiteko aukera izan nuen zenbait urtez, irakasleen irakasle, baina, azkenean, administrazio barruko hariak hain konplikatuak direnez, ezin izan nuen jarraitu, eta lastima handiz utzi nuen irakaskuntza.

Hala ere, Psikopedagogia ikasketak egin zenituen, eta Durangaldeko euskaltegi-tako ikasleen motibazioak aztertu.

Nik motibazioan sinesten dut. Igual erratuta egon naiteke, baina nik hor ikusten dut gakoa, eta lan egin dudan urteetan askotan aipatu didate ikasleen motibazioa, baina nik beti heldu nahi nion beste muturrari: irakasleok zer motibazio daukagu? Gu motibatuta ez bagaude, nola motibatuko dugu parekoa? Lau euskaltegitako ikasleekin bildu nintzen, eta ondorioztatu nuen irakasleen motibazioak eragin handi-handia duela, zalantza barik. Lan egin dudan urteetan ikusi ditut lankide batzuk oso motibatuta, eta beste batzuk, ordea, beste edozein lanetan ari balira bezala, bulegariak balira bezala. Nire ustez, ez da gauza bera.

Ez dugu orain arte aipatu, baina, ezer baino lehen, militantzia aritu zinen euskara eskolak ematen.

Bai, euskara irakasle 18 urterekin hasi nintzen. AEK sortu aurretik hasi ginen Durangon alfabetatze kanpainarekin, Rikardo Arregirekin, Josebaren anaia-rekin. Hori, baina, afizioz egiten genuen, bulegotik irten ondoren. Horra zetozen ikasle guztiak sekulako gogoarekin etortzen ziren, eta horiekin pasatzen genituen klase orduak, gero tabernan zer bait hartu, asteburuetan ere txan-

goak antolatzen genituen... Familia bat zen, sare bat.

Nolako giroa zegoen garai hartan?

Kaleko giroa diozu? Ea, bada oso ezberdina zen, klandestinitatea bizi ez duenak agian ez du imajinatzen zer den... Dena zen klandestino, baina bazeukan halako morbo bat ere, niretzat behintzat. Gainera, gaztea nintzen, 17-18 urterekin badaukazu indarra eta gogoa. Jesuitek uzten zizkiguten euren gelak, eta, ikastetxearen aurrean, han egoten ziren hiru tipo, guardia zibil sekretak. Hori bage-nekien denok, ezizenak ere jarri genizkien. Gu ikastetxera sartzen ginen, eskola ematen genuen, eta gero joan egiten ginen. Esan behar da batzuetan aprobetxatzen genuela bestelako bilerak egiteko.

Eta guardia zibilak ez ziren inoiz sartu?

Ez, baina behin egonda nago kuartelean; klaseak eman ostean etorri ziren nire bila.

Zergatik atxilotu zintuzten?

Propaganda ilegal deitzen zenaren ale batzuk neuzkan, eta horregatik.

Eta gero?

Gero torturak etorri ziren. Ohikoa izaten zen orduan eta orain ere uste dut. *Propaganda ilegal*a egozteko panfleto bera-ren hiru ale eduki behar zenituen, baina nik hiru ale ezberdin neuzkan. Banekien kartzelarik ez nuela izango, haiek ere esan zidaten, baina salbuespen-egoeran geundenez, han aguantatu behar nuen. Jo eta ke aritu ziren, aleak nork eman zizkidan esan arte.

Zenbat denbora egon zinen?

Hiru egun... edo hobe esan, hiru gau. Gauak ziren benetan beldurgarriak. Markarik ez uzteko, trapu bustiak ipintzen zizkidaten, eta gainean jo: hankapetan, ukondoetan, belaunetan... Tortura izugarria da, ezin da deskribatu.

Orain pare bat aste hitz egin dute Donostian torturak jasan dituzten hiru emakumek.

Bai... Izugarria da. Eta haiek jasan dutenak, nirearekin konparatuz, ez dauka zerikusirik.

Emakume horiek entzun nituenean, dardarka nengoen, negar-arpuluak ateratzen zitzaizkidan.

Eta inpunitatea da nagusi.

Orain Pacok-eta [Etxeberria] lan itzela egin dute, baina hor ez gaude denok, adibidez nik neuk ez dut egin. Lau mila kasu inguru bildu dituzte, eta oso ondo dago, baina askoz gehiago izan ginen. Egun gutxiago egon ginenon kasuan, *malmenor* esaten zen orduan, baina jasan duenak ezin du ahaztu. [Isilunea]. Bueno.

Gaiz beste egingo dugu?

Bai.

Dantzarekin ere baduzu loturarik, Durangoko Kriskitin taldean ibili zara.

Dantza taldea ahul zegoen, eta laguntza eskatu zidaten. Orain dela 32 bat urte izango zen.

Zer lan egin duzu bertan?

Zabalkundea ematen aritu naiz. Bi helburu nagusi izan ditut: kulturartekotasuna eta parekidetasuna bultzatzea. Bata, batez ere gazteei begira, ikus zezatela munduko beste tokietan ere egiten dela dantza, tradizionala eta bestelakoa, eta antzekotasunak daudela, ez dela gu-

Edonora begiratuta ere, gasaren indarra ikusiko duzu

Energiaren Euskal Erakundeak 35 urte daramatzagu lanean, Euskadik **beharrezko duen energiarekin** bakarrik egin dezan aurrera. **Energia iturri berritzaileen, berriztagarrien eta onenen** aldeko apustua egiten dugu. Bitarteko tekniko eta giza baliabide onenekin. Ahalegin hori, denbora luzearen ondoren, **non-nahi ikus dezakezu**.

35 urte energiaz blai

ENERGIAREN
EUSKAL
ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA
ENERGÍA



rea bakarrik, Burgosen ere egiten dituztela antzeko dantzak, edo Polonian.

Eta parekidetasuna?

Durungaldean, Dantzari dantza da gure marka, zazpi edo zortzi dantzaren multzoa da. Hori mantentzeko eta hori bul-tzatzeke, Gerediaga elkarteak 50 urte-antolatatu du Ezpata dantzari eguna. Egun hori antolatzeko bilera batera joan nintzen, eta planteatu nuen emakumeek ere egitea dantzan, eta ezetz esan zidaten: inondik inora! Gero, Kriskitinen, talde mistoa ginenez, asanbladan erabaki genuen ez genuela parterik hartuko jaialdi horretan, neskak eta mutilak joan arte. Eta, horrela, urteak joan dira.

Eta gero?

2015ean, Durangoko jai nagusian, talde mistoa atera zuen Kriskitinek Dantzari dantzara, eta normaltasun osoz hartu zuen jendeak. 2016an, berriz, Gerediagako Ezpata dantzari egunean hiru neska ausartu ziren dantza egitera gizon guztien artean, eta 2017an, orde, gure lau neskak egin zuten dantza lurretako plazan lehenengo aldiz. Egun gogoanga-

rria izan zen benetan, zere bazeuden 84 gizon eta lau andre. Haientzat izan zen erronka itzela eta niretzat satisfakzio izugarria. Gainera, esan behar da oso ondo egin zutela.

Ofizialki erabaki zen emakumeek ere parte har zezaketela ala sartu egin zineten?

Ez, gu sartu ginen. Tira, lehenik gogoe-ta egin genuen barruan, aholkularitza jaso genuen –Oier Araolazak asko lagundu zigun–, hitzaldiak antolatatu genituen, lehenik barrura begira eta ondoren herri mailan. Sartu aurretik, gaia landu dugu. Kontua da, baina, 2017an izan zela Ezpata dantzari egunaren 50. urteurrena, eta harrezkero ez dela berriro egin.

Aurten ez da egin?

Aurten ez da egin. Ez dut uste gure eraginez denik, baina horrela erabaki da.

Aurten egin duzu(e)n zerbait: María Francisca Escolástica de la Fuente Bolangero dantzari durangarra argitara ekarri.

Kasualitatez aurkitu nuen, eta oso pozik nago aurkikuntza horrekin. Be-

taurreko moreei esker aurkitu nuen. Hemen, oso famatuak dira Plateruak [Zilarginak]: De la Fuente Bolangero familia. Izatez, neba-arreba ugari ziren, baina bi aipatu dira beti: batak dantza egiten zuen, eta besteak, berriz, soinu-a jo eta poemak eta bertsoak idatzi. Halaxe sinatzen zituzten beren lanak: Durangoko Plateruak. Tira, beste gauza baten bila nenbilela, Lino Akesolo-ren testu batean topatu nuen arrastoa: orain berrehun urte Parisen argitaratu-riko liburu batean, [Juan Antonio] Zamakolak idatzi zuen Plateru dantzariak arrebarekin egiten zuela dantza, eta pentsatu nuen: bada orduan dantzaria izango zen arreba ere! Elizako papere-tan hasi nintzen haren bila, bataio-a-girietan, eta seme-alaben artean bera zenez neska bakarra, erraz aurkitu nuen gure Maria Escolástica. Inguruko zenbait dantzarirekin komentatu nuen, eta *Plateru* ikuskizuna prestatu zuten, hura argitara emateko eta bizia emateko. San Simon eta San Juda egunean estreinatu zen, Plateruena antzokiaren 14. urteurrenean, eta oso emozionantea izan zen. ■

ZIENTZIA bizitzeko



5€

2019a TAULA PERIODIKOAREN
NAZIOARTEKO URTEA

ELEMENTUEN TAULA PERIODIKOA
2018an berritua
elhuyar.eus/denda








ZIENTZIAKO
ESPERIMENTU-LIBURUAK
4-10 urteko neska-mutikoek zientziaz gozatzeko!




elhuyar

GOIENKALE 87

HIZTEGIAK GUZTIENTZAT

elhuyar.eus/denda



gozatu!

ELHUYAR ALDIZKARIA
aldizkaria.elhuyar.eus



20€

urteko harpidetza



RIKARDO ARREGI KAZETARITZA
SARIA 2018
MUGARRIETAKO BAT